



9-10
2023

AZAROAK
NOVIEMBRE
NOVEMBER

BILBAO EUSKALDUNA
JAUREGIA

ENPLEGUAREN



KONGRESUA

CONGRESO
DE EMPLEO

EMPLOYMENT
CONGRESS

**POLITIKA PUBLIKOAK ETA
ERANTZUNAK EUSKADIKO
ENPLEGUAREN
LEHENTASUNEZKO ERRONKEI**

POLÍTICAS PÚBLICAS Y
RESPUESTAS A RETOS
PRIORITARIOS DEL EMPLEO
EN EUSKADI

PUBLIC POLICY AND
RESPONSES TO HIGH-PRIORITY
EMPLOYMENT CHALLENGES
IN THE BASQUE COUNTRY

UE23
PRESIDENCIA ESPAÑOLA
CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO



Lanbide
EUSKO ENPLEGU ERANTZUN
SERBIZIOA DE SERVICIO



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



AURKIBIDEA



AGURRA **4**

AURKEZPENA **7**

HITZALDIEN ETA MAHAIEN GAIAK **9**

EGITARAUA **12**

HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK **15**

BATZORDE ZIENTIFIKOA **28**

INFORMAZIO OROKORRA ETA ZERBITZUAK **29**



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



AGURRA



Euskadin, azken hiru urteotan, garai berrietarako enplegu-politiken espazio berri bat sortzen aritu gara. Hasiera-hasieratik jakin genuen, oraindik ere pandemian bizitza berreskuratzea posible egin zuten murrizketek lotuta ginduzkatenean, ezin genuela larrialdiei erantzutera mugatu. Are gehiago, jakin genuen larrialdi horiei ezin geniola erantzun iraganeko errezetekin, eta, aitzitik, bide berriak urratu behar genituela, pertsonak eta enpresak babestu ahal izateko. Ekoizpen-sarearen eta eragile sozialen konpromisoaren erantzun politiko bat izan zen, aukera eman diguna inoiz ezagutu dugun krisirik sakonenetik azkarrago suspertzeko, eta honezkeroko milioi bat langile eskubidedunen langa gaintzeko, orduan irudikatu ere egin ezin genuen zifra bat. Nola irudikatuko genuen, ba, gainera orduantxe piztu bazen gerra Europaren atarian, eta zuzenean eragin bazien jarduera ekonomikoari eta etxeei?

Hala ere, berdin-berdin jakin genuen begirada zabaldu beharra genuela. Zerumugara begiratu behar genuen egunerokoan antzeman dezakeguna baino are azkarrago eraldatzen ari den mundu aldabera honetan. Begirada zabal horri ekiteko, partaidetza- eta lankidetza-prozesu bat hasi genuen, legegintzaldi honetako hiru enplegu-kongresuetan geldialditxo bana izan duena hurrengo urratsak zehazteko eta piezak batzeko, enplegu-politikei heltzeko era ezberdina ahalbidetzeko.

Kongresu horietan, eta Lan eta Enplegu Sailak garatutako askotariko jardunaldietan, Lanbidek eta Osalanek hainbat jarraibide ezarri dituzte enpleguaren kalitatea eta hura garatzeko baldintza hobekak ekimen bakoitzaren bereizgarri bihurtzeko. Hortik sortu zen lehen bide-orria, Enpleguaren 2030 Euskal Estrategia, eta gero 2023 Plan Estrategikoan legegintzaldiko konpromisoak ezarri ziren. Hortik dator, halaber, zerbitzu-publikoa Lanbide Hobetzen hobekuntza-planarekin eraldatzeko prozesu sakona, zeinean aurrera goazen pertsonen eta enprenen artatzen jarraituta. Enpleguaren Liburu Zuria gida oinarritzeko, oso eta egiaztatua da garai honetarako erabaki egokiak hartzeko. Horrez gainera, Enpleguaren lehen Euskal Legea dugu, behin betiko onetsiko dena aurten, 2023an, eraldaketarako eta elkarlanerako asmo bete duena eta orobat enprenen eta langileen beharrei erantzun nahi diena.

Legea ez dator, baina, ezerezetik. Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako sistemaren kudeaketa 2022an adostutako eta onetsitako arau berriari esker berrantolatu ondoren sortu da, Lanbide modernizatzeko prozesuaren ostean. Enplegu duina lortzeko zailtasun handienak izan dituztenak barruan hartzeko era berriak probatzeko programa ugariaren esperientziatik ere abiatu da, eta kualifikazio-eskaria eta -eskaintza egokitu egiten dizkie lanaren bilakaerari eta trantsizioei. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko Europako funtsek lagundu dute politika horiek mailaka ezartzen, baina, gainera, Sailaren berezko baliabideetatik apustu irmoa egin da, bai Lanbideko programetan bai diseinu estrategikoez arduratzen den Enpleguaren Zuzendaritzaren programetan ere, zeinak horretarako aurrekontua hamarkoiztu egin baitu.





ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



AGURRA



Legea ezerezetik ez da sortu, beraz, baina haren bidea ez da onetsi eta berehala amaitzen. Aitzitik, eskakizunak handitu egiten ditu, Lanbideren antolakuntza eraldatzen bukatzera behartzen baitu, behartu egiten baitu euskal enplegu-sareko eragileen koordinazioa optimizatzen eta kudeaketa-tresna komunak bateratzera, eta eraginkorrak eta efizienteak izatera enplegu-zerbitzuen zorroa egikaritzean, baita, gainera, herritarren eskubide berri bati erantzutera ere, hain justu, enplegu-plan pertsonalizatuaren bitartez lan-orientazioa eta -aktibazioa jasotzekoari.

Betebehar horiek guztiak enplegu- eta inklusio-politiken etengabeko berrikuntzan eta ebaluazio sistematiko eta independentean oinarritutako eredu batetik sustatzen dira. Planteatzen ari diren behar guztien kontu etengabe emateko eta horietara etengabe egokitzeko modu bat da, azken finean. Horrek bultzada berri bat eskatzen du, ordea. Azken kongresuetan abian zeuden estrategiak eta erreformak elikatu ditugu, eta Enpleguaren VI. Euskal Kongresu honek balio behar digu sortzen ari den mundu honetan izan nahi dugun Euskadi lehiakor eta kohesionatuaren erronkei erantzuteko politika berriak ezartzen asmatzen jarraitzeko.



Idolia Mendia Cueva

Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua





ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



AURKEZPENA



Enpleguaren VI. Kongresu honekin, legegintzaldi honen hasieran enplegu politika publikoei buruz abiarazitako hausnarketen dinamikari jarraipena emango zaio, eta eragile publiko eta pribatu guztiei ezagutza gune bat eskaintzen zaie, lana bilatzen ari diren pertsonen eta jendea behar duten enpresen beharrei erantzuteko abian jartzen ditugun erreminta eta tresnak hobetzen laguntzeko.

Kongresua segidako bi egunez izango da, goizez, eta 12 ekitaldi publiko egingo dira: 5 ponentzia, 5 eztabaida-mahai eta hasierako eta amaierako ekitaldiak; batzuetan nahiz besteetan, enpleguaren, prestakuntzaren eta berrikuntzaren arloetan ospe handia duten adituek hartuko dute parte.



LEHENENGO JARDUNALDIAN “enplegu duina lortzeko gaitasun edo kompetentziak eta kualifikazioa” izango dira aztergai, Kompetentzien Europako Urtearen esparruan. Gai horren inguruan, lehen esparru-ponentzia mundu aldakor batean prestakuntza eskaintza egituratzeko aukerei eta mugei buruzkoa izango da. Lanbide Heziketaren Lege berrian marrazten den sistema nolakoa den entzuteko aukera izango dugu, Enplegu Sistemarekin zer nolako lotura duen eta Euskal Autonomia Erkidegoan nola ezartzea aurreikusten den. Lan mundutik urrun dauden pertsonak trebatzeko estrategia eta metodologiak berri izango dugu, ebidentzian oinarrituta. Eta saioa amaitzeko, arreta jasotzeko lehentasuna dutenei bideratutako esperientzia berritzaileak aurkeztuko dizkigute.

BIGARREN JARDUNALDIAN “berrikuntza enplegu politika publikoetan”

izango da gaia eta, hasteko, enpleguko zerbitzu publikoetan gertatzen ari den eraldaketari buruzko ponentzia bat izango da; izan ere, zerbitzu publiko horietan, lana bilatzen ari diren pertsonen eta jendea bilatzen ari diren enpresei zerbitzuak eskaintzera bideratzen ari baitira jarduna. Jarraitzeko, mahai-inguru bat izango da, enplegu politika aktiboen zerbitzu zorroa osatzen duten zerbitzuetako hobekuntzako eta berrikuntzako esperientziak hartuta oinarri: orientabidea, bitartekaritza, autoenplegua eta aholkularitza enpresei. Horren ondoren, enplegu politika publikoen berrikuntza teknologikoari eta digitalari buruzko ponentzia bat izango dugu, betiere berrikuntzaren xedea trantsizio teknologikoaren erronkara egokitzea izanik, eta enplegu politika aktiboen zerbitzura dauden hainbat tresnatan nola aplikatzen den ikusiko dugu: lan historia bakarra, eskaintzen biltegia, profilatzeko tresna, eta enpleguaren eta prestakuntzaren behatokia.

Bigarren jardunaldia eta Kongresua amaitzeko, ondorioen mahai bat izango dugu. Mahai horretan, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaia osatzen duten gizarte eragileek parte hartuko dute, eta Kongresuko bi jardunaldien laburpena eta balantzea egingo dute. Horretaz gain, sortuko diren behar berriei erantzuteko enplegu politika publikoetan aurrera egiteko geratzen diren erronkei buruzko ikuspegia azalduko dute, aukerak eratzen ari baikara, dagoneko, sortuko diren behar horien aurrean.





ESPARRU-HITZALDIA. **Nola prestatu etorkizun ezezagunerako.**

2023 Gaitasunen Europako urtearen esparruan, eta gaur egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun eraginkorrak emateko, hainbat gairen inguruan gogoeta egin nahi dugu: kualifikazioak, birziklatzeak eta birkualifikazioak, etengabeko eraldaketa produktibo eta soziala jasaten ari den gizartean, bermatzen al dute enplegu duina? Bestelako zer ekintza edo zer ekintza osagarri dira beharrezkoak enplegura heltzeko eta hura mantentzeko?

Ezagutza eta gaitasuna ezinbesteko baldintzak dira enplegua lortzeko, baina posible al da, edo, are gehiago, galdagarria al da prestakuntzako eskaintza zorrozki egokitzea enpresen profil profesionalen eskarira?


Kontuan hartuta enpresei sakonki eragiten dietela merkatuen bilakaerak, berrikuntzek eta lehia-dinamika ekonomikoak eskatzen duen produktu eta zerbitzuaren ezinbesteko ezberdintzeak, nola erantzun beharko liekete prestakuntzako politika publikoek eta prestakuntza profesionaleko eta enplegurako sistemak gero eta azkarragoa den titulazio profesionalen zaharkitzeari, trantsizio teknologiko eta digital eta trantsizio energetiko eta klimatiko betean gauden honetan are azkarragoa denari, eraldaketa demografikoari eta langileen erreleboan eta adinen kudeaketan duen eraginari?

Ikuspegi etiko eta moraletik, lan-orientazioa eta, hortaz, prestakuntza-eskaintza soilik enplegua sortzen duen lan-eskariaren arabera antolatu beharra dago? Zer gertatzen da bokazioaren hautu librearekin eta interes pertsonalekin enplegu-aukeretara egokitzen ez direnean?

HITZALDIA. **Lanbide Heziketako Legea eta Enplegu Legea: ezarpena eta osagarritasuna.**

Hitzaldi honetan Lanbide Heziketako sistemaren (hezkuntza) eta laneko prestakuntzakoaren (enplegua) antolakuntza eta osagarritasuna ezagutzeko aukera izango dugu, arau-esparru berrian, lanbide-heziketaren eta enpleguaren alorretako erregelamendu-garapenaren etalegediberrienezarpenaren egoera, eta lanbide-heziketako legediak enplegurako prestakuntzaren eskaintzan (gaur egun laneko prestakuntza deritzo, Enplegu Lege berrian) duen eragina eta harekiko interakzioak.





ELKARRIZKETA-MAHAIA. **Gaitasun profesionalak eta enplegu duina.**

Aurreko hitzaldiko hausnarketetatik abiatuta, asmoa da, batetik, Prestakuntza Profesionaleko eta Enpleguko Euskal Sistemaren ikuspegitik eztabaida sustatzea legedi berriak izango duen eraginaren inguruan; bestetik, Europako esparruko kualifikazioen eta gaitasun profesionalen elkarrekikotasuna aztertuko da, bereziki lan-eskariari etengabe egokitu dakioken prestakuntzari dagokionez.

Halaber, prestakuntza-prozesuek laneratzean eta enplegua mantentzean edo hobetzean duten erabilgarritasuna edo eraginkortasuna jorratuko da, kualifikazio txiki, ertain eta handiko langabeentzako, enplegatuentzako eta unibertsitate-eremuan daudenentzako prestakuntza-programa arrakastatsuen ebidentziak ekarrita.


HITZALDIA. **Lan-merkatuko politiken eta inbertsio sozialeko politiken arteko osagarritasuna, talde zaurgarriak gaitzekoa.**

Jarraibide transferigarriak eta zabalgarriak aztertzen eta proposatzen dituzten ikerketen aurkezpena, lehenasunez artatu beharreko pertsonekin (esklusioan edo eskusio-arriskuan, desgaitasuna, gazteak, 50etik gorakoak, kualifikazio baxukoak, emakumezkoak, iraupen luzeko langabezia eta abar) jarduteko estrategietako, metodologietako eta programetako jardunbide egokietako esperientzia berritzailetatik abiatuta.

ELKARRIZKETA-MAHAIA. **Lehenasunez artatu beharreko pertsonen zuzendutako programa berritzaileak eta arrakasta-ebidentziak.**

Lehenasunezko populazioko askotariko taldeetako esku-hartzeko esperientzia arrakastatsu zehatzak aurkeztea.





HITZALDIA. **Enplegu Zerbitzu Publikoetako berrikuntza, eskariaren (pertsonak) eta eskaintzaren (enpresentzako zerbitzuak) ikuspegietatik.**

Ikuspegi bikoitz batetik, hitzaldi honek, alde batetik, «enpresa bezero» ikuspegia sakontzea, zerbitzuak enplegu-zerbitzu publikoetatik enpresen behar askotarikoetara bideratzea ikusgai egitea eta indartzea, ikusmolde klasikotik harago, harreman-paradigma berri baterantz oztupoak gainditzen saiatuz. Bestetik, arreta-eredu berriak sakontzea Enplegu Zerbitzu Publikoetako eskatzaileentzat, aldi berean enplegurako edo enplegua hobetzeko bidean erantzunkideak izango diren eskubideen subjektutzat eta herritartzat hartuko dituztenak.

ELKARRIZKETA-MAHAIA. **Jardunbide egokiak eta berrikuntza enplegu-zerbitzu publikoen zorroan.**

Helburua da enplegu-zerbitzu publikoek enplegu-zerbitzuen zorroa erabiltzean darabiltzaten jardunbide egokiak erakustea. Ezarritako prestakuntza gorabehera, zerbitzu hortaz berariaz hitz egingo da kongresuaren lehen egunean.

HITZALDIA. **Berrikuntza teknologikoa eta digitala enplegu-politikak kudeatzean eta ezartzean.**

Hitzaldi honetan, adimen artifizialak, algoritmo etikoak, prozesuen eta zerbitzuen digitalizazioak eta automatizazioak eta pertsonalizazioak enplegu-politika aktiboetan duten zeregina aztertuko dugu. Gai etikoak eta eskubideei lotuak zerbitzuetan aurrerakuntza teknologikoak eta enplegu politikak ezartzean jorratuko dira.

ELKARRIZKETA-MAHAIA. **Emaitzak optimizatzeko eta elkarlanerako sareak integratzeko enplegu-sistemaren tresna komunak.**

Enplegu-zerbitzuetako zorroaren garapen optimizaturako tresna eta gailuak sortzeko eta erabiltzeko esperientzia berritzaileak.

ELKARRIZKETA-MAHAIA. **Enpleguaren VI. Kongresuaren ondorioak.**

Elkarrizketa-mahaietan hizlariak eta parte-hartzaileak egindako ekarpenen eta enplegu-politika-aurrerakuntzen eta erronken balioespena, eragile sozialek eta instituzionalek egina.





2023/11/9:

“ENPLEGU DUIN BATERAKO GAITASUNAK ETA KUALIFIKAZIOA”

ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



EGITARAUA



8:30 **Bertaratutako en harrera eta akreditazioa.**

9:00-9:30 **Inaugurazioa.**

Juan Mari Aburto. Bilboko Alkatea.

Teresa Laespada. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saileko Foru Diputatua.

Idoia Mendia. Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburua. Eusko Jaurlaritza.

9:30-10:15 **ESPARRU-HITZALDIA. Nola prestatu etorkizun ezezagunerako.**

José Antonio Marina. Filosofo, idazle eta pedagogo.

10:15-10:45 **HITZALDIA. Lanbide Heziketako Legea eta Enplegu Legea: ezarpena eta osagarritasuna.**

Clara Sanz. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Lanbide Heziketako idazkari nagusia.

10:45-11:15 **Atsedena kafea.**

11:15-12:30 **ELKARRIZKETA-MAHAIA. Gaitasun profesionalak eta enplegu duina.**

Jorge Arévalo. Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako sailburuordea. Eusko Jaurlaritza.

Juan Carlos Ibarrola. LANBIDEko Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria.

Patricia Pérez-Gómez. Europako Gizarte Funtzaren talde arduraduneko burua Europako Batzordeko Enplegu eta Gizarte Politiketako Zuzendaritza Nagusian.

Montse Maritxalar. EHUko Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren errektoreordea.

Moderatzailea: **Sara de la Rica.** ISEAK fundazioko zuzendaria eta EHUko Ekonomia katedraduna.

12:30-13:00 **HITZALDIA. Lan-merkatuko politiken eta inbertsio sozialeko politiken arteko osagarritasuna, talde zaurgarriak gaitzekoa.**

María Laffaire. KSNET Knowledge Sharing Network-en ikertzailea.

13:00-14:30 **ELKARRIZKETA-MAHAIA. Lehentasunez artatu beharreko pertsonen zuzendutako programa berritzaileak eta arrakasta-ebidentziak.**

Mariel Quera. SARTU TALDEAren arreta, orientazio eta laguntza arloko koordinatzailea.

Pablo Núñez. KL KATEALEGAIako zuzendari nagusia.

Begoña Etxebarria. NOVIA SALCEDO FUNDAZIOaren zuzendaria.

Izaskun Barbero. CARITASeko Enplegu eta Ekonomia Solidarioko Proiektuen Berrikuntza eta Garapenerako arduraduna: “Sendotu Aldiberean” esperientzia, baztertuak edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak.

Fernando Lallana. Aholkularia eta aditua giza-baliabideetan eta ekintzailertzan. +50EMPRENDE SARIETAKO zuzendaria.

Moderatzailea: **Sara Buesa.** LANBIDEko Prestazioetako eta Inklusioko zuzendaria.





2023/11/10:

“BERRIKUNTZA ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOETAN”

ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



EGITARAUA



- 9:00-9:30 **HITZALDIA. Enplegu Zerbitzu Publikoetako berrikuntza, eskariaren (pertsonak) eta eskaintzaren (enpresentzako zerbitzuak) ikuspegietatik. Juan José Torres.** Kataluniako Generalitateko Enpresa eta Lan Saileko Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaria.
- 9:30-11:00 **ELKARRIZKETA-MAHAIA. Jardunbide egokiak eta berrikuntza enplegu-zerbitzu publikoen zorroan. Enplegurako orientazioa. Ana Belén García.** Madrilgo Erkidegoko Enplegua Sustatzeko zuzendariorde nagusia.
Enplegu politika aktiboak sustatzea eta modernizatzea: COE zentroyen sarea. María Antonia Agudo. SEPE - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Aholkularitza juridiko eta erakundeekiko harremanetarako zuzendariorde nagusia.
Autoenplegurako eta ekintzaitzarako aholkularitza. Begoña López. Asturiasko Enplegu Zerbitzu Publikoko (SEPEPA) zuzendari kudeatzailea.
Pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzaileei aholkularitza. Alicia Gálvez. Enpresei arreta emateko arloko burua Aragoiko Enplegu Institutuan.
Moderatzailea: **Francisco Pedraza.** LANBIDEko zuzendari nagusia.
- 11:00-11:30 **Atsedendia kafea.**
- 11:30-12:00 **HITZALDIA. Berrikuntza teknologikoa eta digitala enplegu-politikak kudeatzean eta ezartzean. Manuel Muñiz.** IE Universityko Madrilgo Elcano Institutuko nazioarteko errektorea, eta irakaslea Nazioarteko Harremanetan.
- 12:00-13:15 **ELKARRIZKETA-MAHAIA. Emaitzak optimizatzeke eta elkarlanerako sareak integratzeke enplegu-sistemaren tresna komunak. Lan-historia bakarra. Jesus Mari Ordóñez.** LANBIDEko Laneratzeko Zerbitzuko arduraduna.
SENDA@ eta LEO. Big Data eta AA pertsonen zerbitzura. Federico Muñiz. SEPE - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Estatistika eta Informazioko zuzendariorde nagusia.
Profilak egiteko tresna. Cesar Martín. Andaluziako Enplegu Zerbitzuko Informazioa Antolatzeke eta Tratatzeke, eta Andaluziako Lan Merkatuko Etengabeko Prospekzio Sistemako zerbitzuberua.
Enplegu eta Prestakuntza Behatokia. Luis Prieto. OBECAN, Kanarietako Enplegu Behatokiko arduraduna.
Moderatzailea: **Javier Ramos.** Instituzioen harremanetako aholkularia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailean.
- 13:15: 14:15 **ELKARRIZKETA-MAHAIA. Enpleguaren VI. Kongresuaren ondorioak. Alfonso Gurpegui.** Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila.
Elena Pérez. Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordea Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila.
Carlos Pereda. CONFEBASKEko Formakuntza arduraduna.
Arantxa Niño. UGT sindikatuko Enplegu eta Formakuntzako idazkaria.
Arantza Martínez. CC.OO. sindikatuko Enplegu eta Lanbide Kualifikazioetako idazkaria.
Moderatzailea: **Tomás Arrieta.** Lan Harremanetako Euskal Kontseiluko lehendakaria.
- 14:15-14:30 **Clownclusiones. Virginia Imaz.** Antzerki taldea Oihulari Klown.
- 14:30 **Amaiera. Alfonso Gurpegui.** Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila.






ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



JOSÉ ANTONIO MARINA



Espainiar filosofo, idazle eta pedagogo. Eszedentzian dagoen filosofiako katedraduna Madrilgo La Cabrera institutuan. Honoris causa dokotrea Valentiako Unibertsitate Politektikoan eta Huelvako Unibertsitatean. Sari ugari jaso ditu bere ibilbide profesionalan. Haren ikerketanaren oinarria izan da neurologian hasten eta etikan amaitzen den adimenaren teoria bat sortzea. Filosofia praktikoan duen interesa tarteko, hezkuntzaren, gizartearen eta enpresaren arloko hainbat proiekturi ekin die, bere lan idatzietan

ikertzen eta defendatzen duenaren erakusgarri direnak. Hain zuzen, Hezkuntza Mobilizazioko mugimendua jarri zuen abian, eta horrexegatik da Gurasoen Unibertsitatea fundazioko lehendakari, besteak beste Centauro proiektua barnean hartzen duen proiektu multzo bat. Fundazioak beste hainbat proiektu ere abiarazi ditu, hala nola Energía Creadora aldizkaria eta Universo UP. Marina, gainera, Berrikuntzako eta Hezkuntza Dinamiketako Ikastetxeko zuzendaria ere bada. Zuzendaria da Adimen Exekutiboari eta Hezkuntzari buruzko Antonio Nebrija Unibertsitateko katedran, talentua sortzeko modua ikertzeko. Alcohol y Sociedad fundazioko batzorde zientifikoko zuzendaria da. Azken urteotan, konbertitu egin da. Filosofian, neurologian, hizkuntzalaritzan eta psikologian murgilduta egon ondoren, sinetsita dago giza kontuak ulertzeko ezinbestekoa dela haien historia ezagutzea, azken finean gizateriaren esperientzia praktikoa baita. Gure datu base funtsezkoena.

CLARA SANZ



Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Lanbide Heziketako idazkari nagusia da 2020ko urtarriletik. Aurretik, MEFPren Lanbide Heziketako zuzendari nagusia izan zen, 2018ko uztailaz gerotzik. Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoko kidea da eta lanpostu ugaritan aritu da autonomia erkidegoetako hezkuntza administrazioetan eta Estatuko administrazio orokorrean. Elkarlanean aritu da nazioarteko erakundeekin, lanbide orientazioko eta hezkuntza politiketako aditu gisa. Gainera, Espainiako estatuko zenbait erakunde eta unibertsitatearen proiektuetan lan egin du.

Hainbat argitalpenen egilea da, orientazio akademiko eta profesionalari, Lanbide Heziketari, hezkuntza sistemai eta hezkuntza politika publikoen ebaluazioari buruzkoak. Clara Sanz Historia Modernoan eta Garaikidean lizentziatu zen, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eta Orientazio Profesionaleko master bat ikasi zuen. Halaber, Magisteritzen diplomatu zen, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Jaso dituen aintzatespenen artean, nabarmentzekoak dira Defentsa Ministerioaren Merezimendu Militarren Gurutze Handia (bereizgarri zuria), 2020an, eta Lider Berritzaileen Top100 Rankingaren Talentua eta Berrikuntza Bultzatzeagatik Ohorezko Saria, 2022an eta 2023ko irailean, Poliziaren Merituaren Gurutzea eman zioten, Barne Ministerioaren bereizgarri zuriarekin.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



JORGE ARÉVALO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako sailburuordea.

Eusko Jaurlaritzak onetsitako Lanbide Heziketako sei planetatik bosten arduraduna (1997, 2004, 2014, 2017, 2022).

Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusiko kidea. Elkarlanean aritu da Espainiako Senatuko Ekonomia eta Lehiakortasun Batzordearekin, baita Kongresuko Hezkuntza Batzordearekin ere, Lanbide Heziketari lotutako hainbat gaitan.



JUAN CARLOS IBARROLA

Lanbideko Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria.

Lizentziaduna Zientzia Politikoetan eta Soziologian. Deustuko Unibertsitatea (1980-1985) eta masterra Marketinean. EHU (1990-1991).

Lanbideko Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko koordinatzailea (2020tik 2022ko urtarrilera). Hobetuz - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioko zuzendari kudeatzailea (2010etik 2019ra). Hobetuz - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioko Bizkaiko lurralde zuzendaria

(1997tik 2010era). Euskadiko Marketin Institutuko zuzendaria (1993tik 1997ra). Ingenieros Consultores Sako Prestakuntzako eta Antolakuntzako aholkularia (1988tik 1993ra).



PATRICIA PÉREZ-GÓMEZ

Europako Batzordeko Enplegu eta Gizarte Politiketako Zuzendaritza Nagusian Europako Gizarte Funtsaren talde arduraduneko burua da gaur egun. Aurretik, Europako Batzordeko Egiturazko Erreforme Laguntzeko Zuzendaritza Nagusian egin du lan. Bertan, Espainiari laguntza teknikoa emateko koordinatzaile gisa eta Hezkuntza Sektoreko buru gisa aritu zen. Espainiarako laguntza teknikoko hainbat proiektu diseinatzen parte hartu zuen, Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzeko, hezkuntzaren

izaera inklusiboa hobetzeko, eskola uztea murrizteko eta zientziaren eta berrikuntzaren sistema nazionala modernizatzeko. Aurretik, Espainiarako eta Portugalerako hezkuntza politikak aztertze eta monitorizatzeko arduraduna izan zen, Europako Seihilekoaren esparruan. Eginkizun horietan, ELGEren proiektua negoziatu eta koordinatu zuen, Espainiari eskumen estrategia nazionala prestatzen laguntzeko. Europako Batzordean baino lehen, 12 urtetik gorako esperientzia izan zuen nazioarteko lankidetzaren esparruan, eta hainbat postu eta erantzukizun bete zituen Europatik kanpoko herrialde askotan.



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



MONTSE MARITXALAR

EHUko Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren errektoreordea.

UPV/EHUren Donostiako Informatika Fakultatean lizentziatu eta doktoratu zen. 2021etik, UPV/EHUko Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea da. 2017tik 2021era, UPV/EHUko Ikasleen zuzendaria izan zen. Gainera, Informatika Fakultateko Antolakuntza Akademikoko dekanordea izan zen, 2011tik 2014ra, eta Informatika Ingeniaritza titularen koordinatzailea, 2014tik 2017ra. 40

ikerketari proiektu baino gehiagotan parte hartu du, estatuan eta European, eta enpresa edo erakundeekin eginiko hainbat kontratutan.

Era berean, Euskara Ingurune Digitalean Sustatzeko Batzorde Bereziko kide izan da, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordean, 2015 eta 2020 artean, bai eta Espainiako Estatuaren ordezkarietako bat ere European Network for Combining Language Learning with Crowdsourcing Techniques cost action ikerketa sarean, 2016 eta 2021 artean.



SARA DE LA RICA

ISEAK fundazioko zuzendaria eta EHUko Ekonomia katedraduna. Gainera, Elcano Errege Institutuko aholkularitza kontseiluko eta AMETIC Hausnarketako Foroko kidea da. Ikertzaile elkartua da IZAn, European lan-merkatuari buruzko ikerketako erreferentzia Aholkularia da Iberdrolan, eta Garapen Jasangarriko Batzordeko lehendakaria da bertan. European Society for Population Economics-eko (ESPE) lehendakaria ere izan zen 2012an, eta Emakumearen Azterketa Ekonomikorako Batzordeko buru 2012an eta 2013an. Elkarlanean aritu da proiektu

ugaritan estatuko eta Euskadiko lanari buruzko hainbat instituziorekin, baita Europako Batzordearekin ere, langabeak aktibatzeari buruzko proiektuetan. Azterlan akademiko asko argitaratu ditu, esaterako, generoaren arabera lan-ezberdintasunei, immigrazioari, pobrezari eta etorkizuneko enpleguari buruzkoak.



MARÍA LAFFAIRE

Politika Publikoetako masterra Pennsylvaniako Unibertsitatean eta Ekonometriako masterra Torcuato Di Tella Unibertsitatean, politika publikoen analisisian eta ebaluazioan espezializatua. CIPPECeko Monitorizazio eta Ebaluazio koordinatzaile gisa lan egin du Argentinan, eta ebaluazio aholkulari espezialista modura, herrialde horretan eta Estatu Batuetan. Gizarte eta hezkuntza arloetako politikak interesatzen zaizkio eta, bereziki, ebaluazio esperimentalak.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



MARIEL QUERA

Gizarte Lanean graduatua, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko EHUko Masterra, UNEDeko Osasun Mental Komunitarioko Aduitua, eta hainbat prestakuntza gizarteratzearen eta laneratzearen, akonpainamenduaren eta feminismoaren arloan 1992tik gaur egun arte.

30 urte baino gehiagoko esperientzia du gizarteratze arloan, eta banaka, taldeka zein komunitatean egiten ditu esku hartzeak: 1992-2000 urteetan, kalean dauden pertsonekin Bartzelonan, eta 2000tik aurrera Sartu Taldean,

desabantaila egoeran dauden pertsonei arreta ematen espezializatutako hainbat gizarteratze programa eta zerbitzu garatzen eta koordinatzen: gizarteratze programak Arabako landa eremuan, enplegu zentroak eta orientazio orokor eta espezializatua Lanbideren zentro laguntzaile gisa; Emakumeekin esku hartzeko programa espezifikokoak bideratzeko gizarte zerbitzua.



PABLO NÚÑEZ

KL Katealegaiako zuzendari nagusia da. Irabazi asmorik gabeko lan-sozietate bat da KL, desgaitasuna duten eta eskusio-arriskuan dauden pertsonezako enplegua sortzen duena Gipuzkoan.

Zientzia Kimikoetan lizentziaduna (EHU), eta MBA masterduna (Deustuko Unibertsitatea), 12 urteko esperientzia duena antolakuntza eta kudeaketako aholkularitza zuzendari gisa, eta 19 KL Katealegaiako zuzendaritzan.



BEGOÑA ETXEBARRIA

Lizentziaduna Zientzia Politikoetan eta Soziologian (Deustuko Unibertsitatea, 1984). Bere lan-ibilbide osoa gazteen enplegarritasuna hobetzeko xedea duen Novia Salcedo fundazioari lotuta egin du, eta bertako zuzendaria da 1987tik. Ibilbide horretan, kudeaketaren arloan eta fundazioaren jardunaren berezko arloetan espezializatu da, esaterako: EFQM kudeaketa-eredua (1995), pentsamendu sistemikoa eta prospektiba (Bilbao Metropoli 30-Prospektiker-Michel Godet, 2005), eta eskualdeko eta

enpresako lehiakortasuneko mikroekonomia- MOC (Harvard- Deustuko Unibertsitatea, 2007).

Haren curriculumak eta lanbide-prestakuntzak aukera eman dio gazteek beren hazkunde pertsonal eta profesionalerako gaitasuna hobetzeko lan egitea, baita Nazio Batuen garapen jasangarriko helburuak erdiesteko enpresek eta lurraldeek duten garrantzia ulertzeko ere.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



IZASKUN BARBERO

Caritaseko Enplegu eta Ekonomia Solidarioko Proiektuen Berrikuntza eta Garapeneko arduraduna: “Sendotu Aldiberean” esperientzia, baztertuak edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak.

Duela 8 urtetik prestakuntzako, lanaren aurreko eta enpresetako laneratze eta ekonomia sozialeko proiektuak diseinatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, eskusio-egoeran dauden edo zaurgarritasun handia duten kolektiboetara bideratuak; horietako batzuk Euskadiko eragiketa-planaren barruan daude, Sendotu Aldiberean entitate-multzorekin esparruan, hau da, eskusio-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako gizareratze- eta laneratze-proiektu integratuetan. Aurretik, 17 urtez jardun zuen antolakunde publikoetako eta hirugarren sektorekoetako proiektu sozial eta esperimentaletan, eta hainbat argitalpen ditu alor horretan. Plangintza estrategikoko, kalitateko eta proiektuak sortzeko prestatazailea da, eta lan-ibilbidea gizarte- eta lan-orientatzaile lanetan hasi zuen.



FERNANDO LALLANA

Lizentziaduna Ekonomian eta Zuzenbidean. Masterra Harreman Publikoetan. Enpresa handitan giza-baliabideetako zuzendari eta aholkulari moduan jardun izan du, eta egun kanpo-aholkularia da Adelsys Endless Possibilities-en. Ekintzaitza-proiektuetako mentorea estatuan eta nazioartean. Batez ere Latinoamerikan. Giza-baliabideetako eta ekintzaitzako irakaslea hainbat negozio-eskolan, esaterako, CEU IAM Business Schoolen eta Industria Antolakuntzako Eskolak homologatutako irakaslea. Fundatzailekidea Social Business Factory-n, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako

enpresa-proiektuen anezka. +50Emprende sarietako zuzendaria. Rne5 irratian Sorbos de emprendimiento irratian-espaziozko zuzendarikidea. Ekintzaitzari buruzko saiakeragilea: Emprender o no emprender (UCLM eta Celya, 2015) saiakeraren autorea, eta Sorbos de emprendimiento (Plataforma Editorial, 2019) liburuaren autorekidea, Abuelos, nunca es tarde para emprender (Alienta argitaletxea, 2019) eta Emprendedores en el infierno (Aula Magna McGraw-Hill, 2020).



SARA BUESA

Doktorea Psikologian, Deustuko Unibertsitatea (Bilbo). Gaur egun Prestazioetako eta Inklusiozko zuzendaria da Lanbiden.

Karrerako funtzionarioa Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, 2008tik. 2015 eta 2021 artean, Gasteizko Udaleko Gizarte Politiketako zuzendaria izan zen. Aurreko prestakuntza eta ibilbide profesionala egoera traumatikoak bizi izan dituztenentzako laguntza psikologikoan eta lagun egitean oinarritu zen, bereziki bikote-harremanetan indarkeria jasan duten emakumeei lotuta, eta arlo horretan esku-hartzea, ikerkuntza eta irakaskuntza bateratu ditu. Clara Campoamor elkarteko psikologoa, baita Arabako Delituen Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan ere, 2004tik 2008ra.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



JUAN JOSÉ TORRES



Lizentziaduna Zuzenbidean (Bartzelonako Unibertsitatea, 1995), diplomaduna Aholkularitza Finantzarioan eta Banku Zuzendaritzan (Institut d'Estudis Financers, 2006), masterra Giza Eskubideetan, Demokrazian eta Globalizazioan, giza-eskubideetan eta enpresan espezializatua (Universitat Oberta de Catalunya, 2020), eta, egun, doktoregia Zuzenbidean (Universitat Rovira i Virgili).

1988 eta 2008 artean Caixa Catalunyan lan egin zuen, hainbat zeregin eta ardurarekin. 2011tik

2014ra Catalunya Caixa taldeko Ondare Arloko zuzendaria izan zen, eta, bertan, entitatearen alokairu sozialeko programa garatzen parte hartu zuen, besteak beste; 2014 eta 2016 artean, aldiz, abokatu eta kanpoko aholkulari gisa aritu zen taldeko higiezinen filialeko Batzorde Sozialean, etxebizitza sozialaren eremuan aholku ematen.

2016tik 2021eko ekainera arte Justizia Saileko Birgizarteratzeko Ekimen Zentroko zuzendari nagusia izan da, eta egun zuzendari nagusia da Kataluniako Generalitateko Enpresa eta Lan Saileko Enplegu Zerbitzu Publikoan.

ANA BELÉN GARCÍA



Zuzenbidean lizentziaduna, Enplegu Teknikari Espezialistaren Goi Mailako Kidegoko funtzionarioa. Administrazio Publikoetako Zientzia Juridikoen Gradua amaitzen ari da gaur egun.

2007an hasi zen administrazioan lanean, Prestakuntzako Zuzendaritza Nagusian, Ikastetxeen Akreditazio eta Inskripzio Zerbitzuan. Ondoren, erregistroko zuzendari izan zen Gizarte Politiketako Sailean, eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiko eta Estrategia eta

Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiko idazkari izan zen gero.

2015etik 2021era, Ekonomia, Enplegu eta Ogasun Sailaren barruan, Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiar laguntza eta aholkularitza ematen egin zuen lan.

2021ean, Ekonomia, Ogasun eta Enplegu Sailaren barruan, Enplegu Bulegoen eta Enplegatzailearen Zerbitzuen zuzendariorde nagusiaren ondoko gisa aritu zen.

2022ko urtarriletik gaur egunera arte, Ekonomia, Ogasun eta Enplegu Sailaren barruan, Enplegua Sustatzeko Bulegoetako zuzendariorde nagusia da.



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



MARÍA ANTONIA AGUDO

Zuzenbidean lizentziatua Madrilgo UNIBERTSITATE AUTONOMOAN eta Administrazio Publikoko Nazioarteko Diploma (ÉCOLE NATIONALE D' ADMINISTRATION, Paris-Frantzia).

Estatuko Administrazioaile Zibilen Goi Mailako Kidegoko kidea eta Madrilgo Autonomia Erkidegoko Goi Mailako Teknikarien Kidegoko kidea.

2018ko martxotik, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Erakunde Harremanen eta Laguntza Juridikoaren zuzendariorde nagusia da.

2012tik 2017ra, Enplegu eta Gizarte Segurantzako kontseilaria izan zen, eta 2011tik 2012ra, Osasun eta Kontsumoko kontseilaria, bi karguak Espainiak Europar Batasunean duen Ordezkaritza Iraunkorrean. 2008tik 2011ra,

Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren Laguntza Unitatean eta Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioko Idazkariordearen Kabinetean aritu zen.

2000tik 2008ra, Ogasun Saileko Ondarearen zuzendari nagusia izan zen, eta 1997tik 2000ra, Madrilgo Formakuntza Institutuko zuzendari nagusia eta Enplegu Saileko Formakuntza Agentziako kudeatzailea. Bi karguak Madrilgo Erkidegoan. 1994tik 1996ra, Enpleguko Institutu Nazionaleko (INEM) formakuntza okupazionalaren kudeaketarako zuzendariorde nagusia izan zen).



BEGOÑA LÓPEZ

Begoña López Soziologian lizentziaduna da, Ikerketa sozial aplikatuan eta Datuen analisisan espezialista, eta doktore ere bada soziologian. African Political Economy ikasketak eta Zuzendaritza publikoko eta Lidergo instituzionaleko masterra ere egina du.

2007an soziologo-lanetan hasi zen Asturiasko Printzerriko Administrazioan. 2013. urtera arte Asturiasko Printzerriko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Analisi Soziologikoaren arloko arduraduna izan da. Halaber, 2010etik 2012ra bitarte irakasle elkartua izan da Oviedoko Unibertsitatean, eta 2018tik 2023ra, berriz, Gizarte Zerbitzuen Asturiasko Behatokiaren arduraduna.



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



ALICIA GÁLVEZ

Lan Zientzietan lizentziaduna, lan harremanetan diplomaduna eta ekintzailtzako profesionalentzako aholkularitzan espezializatua. Gaur egun arloko burua da “Enpresei arreta emateko teknikaria” Enpleguko tutorea Aragoiko Enplegu Institutuan (INAEM). Iraganean Giza Baliabideen eta Enpleguaren zuzendari izan da Aragoiko YMCA n, eta lan munduratzeko proiektuen enplegu koordinatzaile teknikoa: PMEI 2010, PMEI 2011, PRL FEAG 2010 eta PRL FEAG 2009; U.G.T - Aragoi. Enplegurako zerbitzuak; prestakuntza-ekintzen programatzailea eta irakaslea.

Hainbat erakunde prestatzaile. Eta giza baliabideen kudeatzaile komertziala.



FRANCISCO PEDRAZA

LANBIDEko zuzendari nagusia. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria izan da. Gainera, Garraio, Merkataritza eta Marketin Institutua Fundazioko zuzendari gerentea izan da. Erakunde hori enplegurako prestakuntzan, ikerketan, berrikuntzan eta enpleguaren sustapenean aritzen da. Gobernu-lanetan hasi aurretik, Prestakuntza Funttsaren Gipuzkoako ordezkaria izan zen. Prestakuntza-, orientazio- eta laneratze-programak, azterlanak eta proiektuak zuzendu eta egin ditu sektore publikoan eta pribatuan 30 urte baino gehiagoz.



MANUEL MUÑIZ

IE Universityko Madrilgo Elcano Institutuko nazioarteko errektorea da, eta irakaslea Nazioarteko Harremanetan. Halaber, IEko Gai Publikoen eta Munduko Gaien Eskolako dekanoa da. Aditua da munduko ekonomian eta eraldaketa digitalean, eta haren lanaren zati baten oinarria da teknologiak enpleguan duen eragina eta gaitasun berriak garatzeko beharra.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



JESÚS MARI ORDÓÑEZ

Informatikan lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Enpresen Kudeaketa eta Administrazioiko diplomaduna Enpresen Kudeaketako Europako Eskolan.

Gaur egun, Lanbideko Laneratzeko Zerbitzuko arduraduna da. Hainbat Enplegu Zentro Berezitako kudeatzailea izan da (1991-1999), Euskadiko ONCEren lurralde ordezkaritzako informatikako teknikaria ere bai (1989-1991) eta informatikako arduraduna Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailean (1987-1989).

Europar Batasunaren hainbat lankidetzamisiotan parte hartu du, aditu gisa, Tunisian (TUNISIAREN, ESPAINIAREN ETA ALEMANIAREN ARTEKO SENIDETZE-PROIEKTUA: DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO LAGUNTZA) eta Uruguain (Lan Orientazioko Zerbitzu Sistema Nazionala ezartzeko instituzioen arteko koordinazioa indartzea).

Enpleguaren eta desgaitasunaren eremuan, Europako hainbat HORIZON proiektutan parte hartu zuen 90eko hamarkadan. Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaria Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemari (SISPE)



FEDERICO MUÑIZ

Fisika Zientzietan lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitatean (1992). Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan dago 1992tik, Matematika espezialitatean.

2008ko irailetik, SEPEko (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) Estatistika eta Informazio zuzendariorde nagusia da.

Europar Batasuneko Enplegu Zerbitzu Publikoen arteko ikaskuntzako eta ebaluazio konparatiboko PES Benchlearning Proiektuaren Zuzendaritza Taldeko kidea da.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



CESAR MARTÍN

Andaluziako Enplegu Zerbitzuko Informazioa Antolatzeko eta Tratatzeko zerbitzuburua da, eta Andaluziako Lan Merkatuko Etengabeko Prospekzio Sistemako (Argos Behatokia) arduraduna ere bai. Ekonomian lizentziaduna da eta unibertsitate-masterra du Estatistika Publikoan Sevillako Unibertsitatekoan. Andaluziako Juntako Estatistikako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko funtzionarioa da 2006ko urritik, eta bere ibilbide profesionala Andaluziako Estatistika eta Kartografia Institutuan hasi zuen,

lan-merkatuko estatistikak aztertzen eta sortzen, Andaluziako hiruhilekoko eta urteko eskualdeetako kontabilitatean, instituzioetako kontabilitateko input-output esparruan eta matrizeetan, besteak beste etxeetakoetan. 2011an, Andaluziako Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Bitartekaritza Zerbitzuko burutza hartu zuen, eta 2021era arte lanean jardun da enplegurako bitartekaritza eta enplegu zerbitzu publikoetako enpresen zerbitzu-ereduan. Halaber, Andaluziako Enplegu Zerbitzura heldu zenetik Andaluziako Lan Merkatuko Etengabeko Prospekzio Zerbitzuko (Argos Behatokia) arduraduna izan da, baita Eures sareko Andaluziako arduraduna ere. 2021ean, Andaluziako Enplegu Zerbitzuko Informazioa Antolatzeko eta Tratatzeko Zerbitzuko buru bihurtu zen. Haren xede nagusia da kudeaketa integraleko eredu berri bat garatzea eta enplegu-eskatzailen profil estatistikoak egiteko tresnak garatzea, data lead edo data driven antolakuntzarantz jotzeko prozesuetako zutabe oinarritzko gisa, besteak beste.



LUIS PRIETO

Luis Prieto Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Lan Merkatua ikertzearen, Kanarietako enpleguari buruzko datuetarako lehen Data Warehousea osatzeko lanetan parte hartu du.

CanariasEmplea markaren garapena, Lana Sustatzeko Kanarietako Fundazioaren antolaketa-ereduaren aldaketara egokituta, Open Government printzipioei jarraikiz; eta erakundearen sare sozialen garapena.



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



JAVIER RAMOS

Bere ibilbide profesionala enplegu, prestakuntza eta toki-garapeneko zerbitzuen kudeaketari lotuta egon da. Eusko Jaurlaritzako Eskualde Batzordeen programan parte hartu zuen. Eusko Jaurlaritzako Lan Merkatuaren Behatokiko zuzendaria izan da, eta egungo LANBIDEren jatorrian dauden proiektuen arduraduna, hala nola Langai, Euskal Enplegu Zerbitzua eta LANBIDE.NET webgunea. Egailan sozietate publikoko zuzendaria izan zen haren azken etapan, eta LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuko lehen zuzendaria.



ALFONSO GURPEGI

Jardun profesional eta zuzendaritza-jardun luzea izan du enpleguari, inklusioari eta gizarte-zerbitzuei lotuta, azken 35 urteotan. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Enplegu eta Inklusioko sailburuordea da, eta, aurretik, Enplegu eta Inklusioko zuzendaria izan zen. Halaber, aurretik, Gizarte Gaietako sailburuordea eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria izan zen. Espazio Publikoa, Ekologia eta Festa Ospakizunetarako zinegotzi ordezkaria izan zen

Donostiako Udalean, Enplegu Saileko proiektu eta programa transbertsalen arduraduna, eta Bidasoko Garapen Agentziako Enplegu eta Gizarte Berrikuntzako sailburua ere bai. Herritarrekiko Harremanetako eta Gizarte Zerbitzuetako alorreko zuzendari profesionala Irungo Udalean, Bidasoko Garapen Agentziako Enplegu eta Prestakuntza saileko zuzendari profesionala, eta Irungo eta Eibarko udaletan lantegi-eskolako zuzendari profesionala.



ELENA PÉREZ

Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea da.

Lizentziaduna Zuzenbidean. Euskal Herriko Unibertsitatea (2008), eta lizentziaduna Ekonomia eta Enpresa Zientzietan, espezialitatea: koiuntura-ekonomia eta sektore publikoa. Euskal Herriko Unibertsitatea (1991). Masterra Generoan eta berdintasun Politiketean. Rey Juan Carlos Unibertsitatea (2009) eta unibertsitate-aditua Finantzetan. Euskal Herriko Unibertsitatea (1995). Enplegu eta Gazteriako sailburuordea (2020-

2021), Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria (2016-2020), Euskadiko Justizia Administrazioiko Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioa (2009-2016), Gizarte Ekintzako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria eta 2. alkateordea Erandioko Elizateko Udalean (2015-2016).

Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publikoko sailburuordea (2010-2012), Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko zuzendaria (2009-2010) eta CCOOko Justizia Sektoreko arduraduna (2000-2008).



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



CARLOS PEREDA

Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Giza Baliabideak eta Pertsonen Kudeaketa masterra UPV/EHU. 1998an hasi zuen ibilbide profesionala, Hobetuz - Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioan. 1999an, CONFEBASK Euskal Enpresarien Konfederakuntzan hasi zen lanean, eta ia 25 urte daramatza Euskadin Lanbide Heziketa Duala ezartzeko lanean eta euskal enpresen enplegu eta kualifikazio beharren azterketan. 2010etik 2014ra, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako

Batzordeko kidea izan zen. 2011. urteaz gozotik, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kidea da.

Gaur egun, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko eta Euskadiko Eskola Kontseiluko kidea ere bada, euskal enpresen ordezkari gisa. Iraganean, mugikortasun programen (Leonardo da Vinci, Erasmus+) kudeaketa laguntzen aritu da.



ARANTXA NIÑO

1994. urteaz gozotik, Arantxa Niño UGT-EUSKADI sindikatuan dabil gizarte-politikaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetan, eta etengabeko prestakuntzako planak egiten ditu, prestakuntzaren arloarekin lotutako ikerketa-proiektuak (prestakuntza-beharren diagnostikoak, prestakuntzako metodologiak...) sustatu, eta enplegura bideratutako orientazio-zerbitzuak abiarazi eta koordinatzen ditu UGT-Euskadi sindikatuan.

UGT-EUSKADIko ordezkarien prestakuntza sindikala koordinatzea

2021eko martxotik, UGT- Euskadiko Batzorde Exekutiboko kide da, Enplegu eta Prestakuntzako idazkaria, hain zuzen.

Era berean, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko kide, LANBIDERE Administrazio Kontseiluko kide, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Batzorde Iraunkorreko kide ere bada, eta Elkarriketa Sozialeko Mahaiaren lantalde batean baino gehiagotan parte hartzen du.




ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



HIZLARIAK ETA MODERATZAILEAK



ARANTZA MARTÍNEZ

Zuzenbidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta MBA Carlos III Unibertsitatean. 1995az geroztik, Formakuntza eta Enplegu teknikaria CCOO Euskadin, eta 2019tik aurrera, sindikatu horren Batzorde Exekutiboko kidea, Enplegu eta Lanbide Kualifikazioetako idazkari gisa.

Hainbat erakundetako kidea CCOO Euskadiko ordezkari gisa:

Lanbideko Administrazio Kontseilua, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, eta Elkarrizketa Sozialerako Mahaia: zuzeneko parte hartzea lantaldeetan eta lanen koordinazioa CCOO Euskadiren barruan.



TOMÁS ARRIETA

Lizentziaduna Zuzenbidean eta diplomaduna espezialitate juridiko-ekonomikoan, Deustuko Unibertsitatean. Abokatua da, eta eszedentzian dagoen funtzionarioa, Gizarte Segurantzako Administrazioaren Letraduen Kidegoan. Bere jarduna batik bat lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzarenaren eremuan egin izan du. Arbitro moduan sartu zen PRECO (Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Euskal Akordio) 1990ean. 2002an, Lan Harremanetako Euskal Kontseiluan sartu zen, idazkari nagusi moduan, eta 2008tik gaur arte bertako lehendakaria izan da. Irakasle laguntzailea da Deustuko Unibertsitatearen Deusto Business Schoolen, lan-harremanen eta negoziazio kolektiboko arloan.



ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



BATZORDE ZIENTIFIKOA




JOSEBA ZALAKAIN

Eguía Careaga Fundazioko SIIseko zuzendaria 1996tik, eta bertako zuzendaria 2007tik.



FERNANDO CONSUEGRA

Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Sartu Taldeko koordinatzaile nagusia.



SARA DE LA RICA

Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomiako katedraduna eta ISEAK Fundazioko zuzendaria.



MARÍA SAIZ

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea eta Ekintzailetzaren Euskal Behatokiko (EEB-OVE) presidentea.



IÑIGO CALVO

Deustuko Unibertsitateko Deusto Business School-eko irakaslea eta ikertzailea.



JAVIER RAMOS

Lanbide eraldatzeko Lan eta Enplegu Saileko aholkularia.



FERNANDO FANTOVA

Aholkulari independentea politikaren, kudeaketaren eta esku-hartze sozialaren arloetan.



M^{re} JOSÉ ARANGUREN

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko zuzendari nagusia eta Deustuko Unibertsitateko Ekonomiako katedraduna.



IÑIGO ARTECHE

Sektore publikoko aholkularia 1989tik IKERTALDE Grupo Consultor SA enpresan, Retail Euskal Eskolako kontseilaria.






ENPLEGUAREN



KONGRESUA
CONGRESO
DE EMPLEO
EMPLOYMENT
CONGRESS



INFORMAZIO OROKORRA ETA ZERBITZUAK:

QR KODEA

Izena eman duten pertsonak inskripzioan adierazitako helbide elektronikora bidalitako QR kodearen bidez identifikatu eta sartuko dira Kongresura.

ALDIBEREKO INTERPRETAZIOA

Kongresuko ekitaldi guztien (tostenak, mahaiak eta eztabaidak) aldibereko interpretazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, baita keinu-hizkuntzan ere.

BUSINESS CENTER-A

Hizlariak eta Kongresuko programako parte-hartzaileak erabiltzeko.

CATERING-A

Kongresuaren bi egunetan, kaferako atsedenaldia eskainiko zaie bertarutzen direnei, OE aretoaren alboko Hall II-an.

IRISGARRITASUNA

Euskaldunako sarrera guztiak egokituta daude. Kanpoko edozein atetatik sartuta, eraikineko solairu eta areto guztietara iristeko moduko ibilbideak daude. Gainera, igogailu guztiak egokituta daude gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat eta erliebezko eta braille botoiak, ahots-abisagailua eta solairua adierazten duen display optikoa dituzte.

Halaber, larrialdietarako sakagailuarekin egokitutako 19 komun daude. Estaldura instalazio guztietan.

Orobat, akreditazio-mahai eta arropazaindegi guztiak egokituta daude.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO



Lanbide
ERAKUL ENBESU ZIBERTATIA
ERAKUL VASCO DE EMPLEO